# GALDAMES

## zugandik hurbil
## cerca de ti



GALDAMESKO
Udal Gorena

Excmo. Ayto.
de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

## Gailurrez gailur

## Paseo por las cumbres

## Antonio Truebaren bizilekua eta Barbadun ibaiaren ertzeko bide-zidorrak

## Entorno vital de Antonio Trueba y veredas del Barbadun

## Jauregiak, herrixkak eta baselizak

## Entre palacios, aldeas y ermitas

## Burdinaren bidea

## La Ruta del Hierro

## Natura eta erlijioa

## Santuario natural y religioso

# Ruta 1 Ibilbidea





**Gailurrez gailur**
**Paseo por las cumbres**

Ibilbide honetan, Galdamesko mendien mazeletan gora eta behera gabiltzala, tumuluen, trikuharrien eta Historiaurreko beste hilobi batzuen arrastoak aurkituko ditugu hor-hemenka. Metal-Aroko aztarnak ere ikusiko ditugu; duela 4.000 urte ingurukoak dira, eta gure mendietan abeltzaintzan, fruitu-bilketan eta ehizan aritzen ziren giza taldeak bizi izan zirela frogatzen dute.

Ibilbidea Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroko 3. ibilbideari dagokion magenta koloreaz seinaleztatuta dago, eta Ezkerraldearen, Bilboren eta inguruetako haranen ikuspegi zoragarriak ditu.




En este recorrido por las laderas del cordal de los montes de Galdames, tendremos oportunidad de observar restos de algunas construcciones funerarias prehistóricas como túmulos y dólmenes; vestigios de la edad de los metales, hace unos 4000 años, que atestiguan la presencia de comunidades en nuestros montes dedicadas a labores de pastoreo, recolección y caza.

La ruta se encuentra señalizada con el color magenta correspondiente a la ruta 3 del Centro de Interpretación y nos brinda magníficas panorámicas de la Margen Izquierda, Bilbao y valles de los alrededores.

# Leku interesgarriak

1 **Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroa**
Ingurumenari buruzko informazioa emateko eta naturaren aldeko sentiberatasuna sortzeko ekipamendua, Eusko Jaurlaritzarena. Gizakiak naturan eragindako aldaketa sakonen arrazoiak ulertzeko leku ezin egokiagoa. Urte osoan zabalik dago, goizez eta arratsaldez.

2 **Alta Galdames edo El Cuadro mendia**
713 m garai da, eta Ibaizabalen arroaren zein Galdamesko mendi-gailurren ikuspegi ederrak ditu. Oso hurbil, Eskatxabel lepoan, izen bereko trikuharriaren hondakinak ikus ditzakegu. Trikuharriak 14x16 metroko diametroa du eta 1,5 m garai da.

3 **Pico Mayor**
747 m garai da, eta tontorrean tumulu bat dago, bertikalki jarritako harlauzaz osatua. Tumulua 1,6 m garai da eta 13,5 metroko diametroa du. Erdian, harriak horizontalki kokatuta daude.

4 **Ganeran mendia**
Ganeran mendiak 822 m ditu, eta tontor belartsuan Historiaurreko hilobi bat dago, tumulu bat. Galdamesko haranaren ikuspegi zoragarriak ditu.

5 **Gasteran mendia**
Gasteran mendia 801 m garai da, eta gailurretik Eretza, Gallarraga eta Ganekogorta (999 m) mendien ikuspegi ederrak daude. Eretza Enkarterri ekialdeko mendirik altuena da (880 m).

6 **Pico de la Cruz**
Erraz identifikatzen da, kareharrizko gailur soila ikusita. 803 m garai da. Tontorrean Gorbeiakoaren antzeko gurutze txiki bat dauka, eta Larreinetako funikularraren forma duen gutunontzi polit bat.

# Reseñas de interés

1 **Centro de Interpretación Ambiental Peñas Negras**
Equipamiento de información y sensibilización ambiental del Gobierno Vasco donde interpretar las causas de la profunda transformación de la naturaleza llevada a cabo por el ser humano en este entorno. Abierto todo el año en horario de mañana y tarde.

2 **Alta Galdames o Pico El Cuadro**
De 713 m de altitud desde donde se aprecian impresionantes vistas de la cuenca del Ibaizabal, así como la crestería de los montes de Galdames. Muy cerca, en el collado de Eskatxabel, podemos observar los restos del dolmen del mismo nombre. Su diámetro es de 14x16 m y su altura de 1,5 m.

3 **Pico Mayor**
En su cima, a 747 m de altitud, se sitúa un túmulo consistente en losas clavadas verticalmente hasta una altura de 1,6 m y con un diámetro de 13,5 m. En el centro dichas piedras se encuentran horizontalmente.

4 **Alto de Ganeran**
La cresta herbosa del Ganeran, a 822 m de altitud, acoge, así mismo, otro un túmulo o sepultura prehistórica. A destacar sus excelentes vistas sobre el valle de Galdames.

5 **Alto de Gasteran**
Desde su cima, a 801 m de altitud, disfrutamos de unas bellas vistas del monte Eretza, el más elevado de la parte oriental de Enkarterri (880 m), así como del Gallarraga y del Ganekogorta (999 m).

6 **Pico de La Cruz**
Fácilmente identificable, al estar formado por roca caliza desnuda. De 803 m de altitud, está coronado con una pequeña cruz similar a la de Gorbea y un bonito buzón con la forma del funicular de La Reineta.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

# Ruta 2 Ibilbidea





**Burdinaren bidea**
**La Ruta del Hierro**

Gizakiak egindako zuloak, mineral gorrixkaren arrastoz jositako kareharriak, arrakalak eta hutsarteak nonahi, elorri zurien eta arroken artean gorderik. Ikusi bezain laster deigarria gertatzen den kareharrizko eremu zorrotz batean zehar, gure iraganeko meatzaritzaren aztarna ugari aurkituko ditugu ibilbide honetan: galeriak, herrixken hondakinak, plano inklinatuak…

Ibilbidea Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroko 4. ibilbideari dagokion kolore moreaz seinaleztatuta dago.




Huecos horadados, calizas con rasgos de mineral rojizo sangrante, grietas y hundimientos por doquier, mimetizados entre los espinos y las rocas. A través de un terreno calizo cortante que llama la atención a primera vista, este recorrido nos evocará innumerables muestras de nuestro pasado minero: galerías, ruinas de asentamientos humanos, planos inclinados, etc.

La ruta se encuentra señalizada con el color morado correspondiente a la ruta 4 del Centro de Interpretación de Peñas Negras.

# Leku interesgarriak

**Burdina**
Mendi hauetan burdin mea zegoelako lehen albisteak I. mendekoak dira. Izan ere, Plinio erromatar historialari ospetsuak “mendi latz eta garai” bat aipatzen du bere idazkietan, “dena burdinazkoa, ikuskizun miragarria”.

**1 Zugaztieta**
Multzo monumental izendatuta dago. Meatzaritzaren goraldian sortutako herri-arkitektura ikus daiteke Trapagaran udalerriko auzo honetan. Langile-tradizio handikoa da eta Galdamestik hurbil-hurbil dago.

**2 El Sauco meatzari-herrixka**
San Juan menditik ur-jauzi baten antzera jaisten den lubaki erraldoi baten azpian eraikita dago. Gaur egun, oso eraikin gutxi geratzen dira zutik: zaharberritutako bizpahiru etxe eta meategiko kooperatibaren eta bulegoaren egoitza izan zena.

**Karsta**
Meatokien ustiapenak utzitako kareharriek edertasun handiko multzo bitxiak eratzen dituzte, haietako asko orratz-formakoak, euriak kareharrian eragindako higaduraren ondorioz.

**3 La Elvira meatzari-herrixka**
Meatzeetako lubakiek lurra urratzen dute han-hemen. Guztietan ikusgarriena El Hundimiento izeneko lekua da: 1958. urte aldera eratu zen, mendia meatzearen gainera erorita. Beraren aldamenean, La Elvira meatzari-herrixkaren aztarnek sentipen kontrajarriak piztuko dizkigute, aldi berean edertasuna eta hondamena erakusten baitituzte.

## Ibilbide osagarria:

**4 San Juan meatzeak**
**5 Magdalena edo Uraiaga haitzulo-meatzea**
**6 La Elvira herrixka**

# Reseñas de interés

**Hierro**
Desde el siglo I se sabe de la existencia del mineral de hierro en estos montes, tal y como lo describe el famoso historiador romano Plinio cuando habla de "un monte áspero y alto, todo de hierro, que era cosa maravillosa de ver".

**1 La Arboleda**
Declarado Conjunto Monumental. La arquitectura popular nacida en la época de la efervescencia minera se hace visible en este barrio del municipio de Trapagaran, de gran tradición obrera, muy próximo a Galdames.

**2 El poblado minero de El Sauco**
Construido bajo una enorme trinchera a modo de cascada desprendida desde el Alto de San Juan, donde tan sólo sobreviven un par de casas renovadas y el antiguo edificio de oficinas y cooperativa de la mina.

**Karst**
Las calizas resultantes de las explotaciones mineras forman conjuntos de una curiosa belleza, muchas de ellas en forma de agujas. Este tipo de modelado es producto de la erosión del agua de lluvia sobre la roca caliza.

**3 Coto de La Elvira**
Abundantes trincheras o cortas de las minas identifican este espacio, donde destaca la zona conocida como El Hundimiento, fruto del desplome espectacular, hacia 1958, del monte sobre la mina. Junto a él, los restos del poblado de La Elvira, con sus vestigios mineros, nos traerán un sentimiento contrariado entre belleza y desolación.

## Tramo complementario:

**4 Minas de San Juan**
**5 Cueva-mina de la Magdalena o Uraiaga**
**6 Poblado de La Elvira**

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

# Ruta 3 Ibilbidea





**Burdinaren gorrixkatik larreen berderaino**
**Del rojo hierro al verde prado**

Ibilbidea Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroko 7. ibilbideari dagokion kolore laranjaz seinaleztatuta dago. Pastor gailur kareharrizkoak El Gallo mendiaren muturrarekin eratzen duen lepoan hasten da, eta Mayor ibaiaren ibilgu dinamikoaren ertzetik doa. Mayor ibaiak Barbadunera isurtzen ditu urak, El Pobal burdinolaren parean, eta horixe dugu helmuga.

Paisaian pista ugariz urratutako landa zabalak dira nagusi, koniferoz inguratutako elorri zuri, elorri beltz eta txilar ederren artean. Bidean aurrera egin ahala, atzean utziko dugu Galdamesko mendietako meatzaritza-iragana, eta alderik atseginenera hurbilduko gara. Han, Mayor ibaiaren goiko ibilguko zuhaitz autoktonoek mendikate osoko baso-aberastasunik handieneko alderdia osatzen dute.




El recorrido, que sigue las indicaciones de color naranja de la ruta 7 del Centro de Interpretación Ambiental de Peñas Negras, da inicio en el collado que forma la caliza Peña Pastor con la punta de El Gallo y tiene como referente el curso dinámico del río Mayor, que transporta sus aguas hasta el Barbadun, a la altura de la ferrería de El Pobal, nuestro destino.

El paisaje nos presenta grandes campas heridas con multitud de pistas entre preciosos espinos, endrinos y brezos circundados por coníferas. A medida que nos adentramos en este recorrido, iremos dejando un tanto en el olvido el pasado minero de los Montes de Galdames para acercarnos a su cara más amable, donde el arbolado autóctono del curso alto del río Mayor representa la zona de mayor riqueza forestal de toda la cordillera.

# Leku interesgarriak

1 **Peñas Negras Ingurumen Interpretazioko Zentroa**
Ingurumenari buruzko informazioa emateko eta naturaren aldeko sentiberatasuna sortzeko ekipamendua, Eusko Jaurlaritzarena.

2 **"La Cadenilla" plano inklinatua**
1866an egin zuten, El Saucoko meatzeetako burdin mea La Galdames trenbideko 11. kilometroraino jaisteko.

3 **Mayor ibaiaren iturburua**
Mendikateko baso-aberastasunik handieneko lekua da, ingurumen-balio handikoa.

4 **Ventana mendia**
Balkoi paregabea. Aurrez aurre Mello mendiaren tontorra (625 m, Kantabriako mugan) eta Barbadun ibaiaren gaineko mazela zabalak dauzka.

6 **La Galdames trena**
Garai batean, meatzaritzarako tren horrek Sestaoraino garraiatzen zuen Galdamesko meatzeetako burdin mea, La Benedictako deskargalekuraino.

7 **El Pobalgo zubi erromanikoa**
Izen bereko burdinolatik berrehun bat metrora, bi begiko zubi hori aurkituko dugu..

8 **El Pobal burdinola (XVI. mendea)**
1833an, ehun burdinola baino gehiago egon ziren Bizkaian, eta El Pobal deritzona oraindik lanean jarraitzen duen bakarra da.

## Ibilbide alternatiboa:

**Maceo iturria - Peña Helada - Las Cortes**
La Rasa mendi-lepotik Mayor ibaiaren iturbururantz joango gara. Leku paregabea da, mendikate osoko baso-aberastasunik handienekoa.

# Reseñas de interés

1 **Centro de Interpretación Ambiental Peñas Negras**
Equipamiento de información y sensibilización ambiental del Gobierno Vasco.

2 **Plano inclinado "La Cadenilla"**
Construido en 1866 para bajar el mineral de hierro procedente de las minas de El Sauco hasta el kilómetro 11 de la Vía del Ferrocarril La Galdames (barrio Once de Abanto y Zierbena).

3 **Nacimiento del río Mayor**
La zona de mayor riqueza forestal de toda esta cordillera.

4 **Pico Ventana**
Un excelente balcón frente al Alto de Mello (625 m., en el límite con Cantabria) y sus inmensas laderas sobre el Barbadun.

6 **Ferrocarril La Galdames**
La plataforma de este ferrocarril minero, que antaño llevaba el mineral de hierro de las minas de Galdames hasta el descargadero de La Benedicta (Sestao).

7 **Puente románico de El Pobal**
A unos doscientos metros de la ferrería del mimo nombre, nos encontramos con este puente de dos ojos.

8 **Ferrería de El Pobal (s. XVI)**
Representa la única ferrería en funcionamiento en Bizkaia de las más de cien que llegaron a funcionar en 1833.

## Tramo Alternativo:

**Fuente Maceo - Peña Helada - Las Cortes**
Este recorrido se desvía en el Collado de La Rasa, hacia el nacimiento del río Mayor; la zona de mayor riqueza forestal de toda la cordillera.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

# Ruta 4 Ibilbidea





**Antonio Truebaren bizilekua eta Barbadun ibaiaren ertzeko bide-zidorrak**
**Entorno vital de Antonio Trueba y veredas del Barbadun**

Meatzaritzaren, abeltzaintzaren eta mendiko nekazaritzaren aztarnez jositako paisaia baten erdian, gure ibilbidea bitan banatzen da. Lehen ibilbidea, joan-etorrikoa, Barbadun ibaiaren eskuinaldetik doa, haltzadi artean. Hainbat mendetan zehar, meatzariek eta olagizonek misteriozko giro harrigarria sortu dute inguru horretan. Bigarren ibilbidea, berriz, ikuspegi ederrak dituen eta forma bitxiko aintziren artean Montellano auzoraino doan zirkuitu bat da.




*"Y en este glorioso valle*
*la libertad bizcaína*
*ni nunca vencida ha sido*
*ni nunca será vencida"*
*(Antonio Trueba)*

En medio de un paisaje humanizado por los restos de minas, pastoreo y agricultura de montaña nuestra ruta se reparte en dos tramos diferenciados: un primer recorrido, de ida y vuelta, que discurre por la margen derecha del río Barbadun entre alisedas y donde, a lo largo de siglos, gentes mineras y ferronas contribuyeron a crear un espíritu de increíble misterio; el segundo tramo, lo conforma un circuito que nos lleva hasta el barrio de Montellano y discurre por parajes de impresionantes vistas y fantasiosas lagunas.

# Leku interesgarriak

**1 Barbadun ibaia**
Errota eta burdinola asko beraren uraren indarraz baliatu izan dira, eta gaur egun espezie ugariren bizilekua da.

**2 Valdibian errota**
Errota honek bi errotarri ditu: bata garia edo garagarra ehotzeko eta bestea artoa birrintzeko. Talorako, ogirako eta abereentzako irina egiten zuten bertan.

**3 La Olla burdinola eta errota**
XVIII. mendearen hasieran eraikia. Batzuek diotenez, bere garaian El Pobal burdinola baino handiagoa izan zen.

**4 Olakuako zubia**
Landu gabeko harriz egina eta oso garaia. Bere begia 14 m zabal da. Muskiz eta Sopuerta lotzen zituen errege-galtzadan zegoen.

**5 Jarrullada auzoa**
Natur ingurune paregabe batean dago, San Antonio meatzetik hurbil.

**6 Antonio Truebaren jaiotetxea**
Idazle kostunbrista ospetsua. Herri-giroko kantak, poemak eta ipuinak idatzi zituen, elezaharrak eta jaiak oinarritzat harturik eta Euskal Herriaren irudi idilikoa emanez.

**7 Montellano auzoa**
Kontzejuaren ikuspegi zoragarria duen talaia paregabea.

**8 San Ginés etxea**
1874ko apirilaren amaieran, “Errepublikako botere exekutiboaren” egoitza izan zen. Gaur egun, oso egoera txarrean dago.

**9 10 Vinagre putzua eta La Pesquera aintzira**
Kontraste bizia egiten dute inguruko arteekin eta ur-bazterreko landarediarekin.

# Reseñas de interés

**1 Río Barbadun**
Sus aguas han sido fuente de energía para un importante conjunto de molinos y ferrerías y, hoy día, es el hábitat de numerosas especies.

**2 Molino de Valdibian**
Se trata de un molino doble con una piedra para trigo o cebada y otra para maíz, donde se producía harina para el talo, pan o alimento para los animales.

**3 Antigua ferrería y molino de la Olla**
Construido a principios del S. XVIII. Según algunos, en sus tiempos, más grande que la del Pobal.

**4 Puente de Olakua**
Construido en mampostería, de una considerable altura y 14 m de luz, que formaba parte de la calzada real que unía Muskiz y Sopuerta.

**5 Barrio de Jarrullada**
Enmarcado en una zona natural privilegiada, próxima a la mina San Antonio.

**6 Casa natal de Antonio Trueba**
Célebre escritor costumbrista, idílico cantor del País Vasco, que escribió cantares, poemas y cuentos de ambiente popular, pintando en ellos leyendas y fiestas.

**7 Barrio de Montellano**
Una atalaya privilegiada con fantásticas perspectivas de este Concejo.

**8 Casa San Ginés**
Edificio que albergó a finales de abril de 1874, el "poder ejecutivo de la República".

**9 10 La laguna La Vinagre y La Pesquera**
Contrastan con el arbolado mezcla de encinas y vegetación ribereña.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES
Bizkaia
bizkaia.net
Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura
ENKARTERRIALDE

# Ruta 5 Ibilbidea





**Natura eta erlijioa**
**Santuario natural y religioso**

Garai batean burdin mea erauzten zen mendietara abiatuko gara, meatzari-familia saiatuak lan egiteko eta jaiak ospatzeko elkartzen ziren lekura. Meatzeen artetik sigi-saga doan bide zahar bat hartuta, Urallaga auzorantz joango gara, haritz, elorri beltz, eukalipto eta pinu artean. Ur-araztegi berri eta koloretsuaren aldamenetik igaroko gara, Escarpada auzoan meatzarien antzinako bizitegi bi alboan utzita: lehena makal baten gerizpean dago eta Carballa izeneko taberna izan zen garai batean; bigarrena lehengo kooperatibaren eraikina da eta egoera zeharo penagarrian dago.

Urallaga auzoa atzean utzita, haritzez eta ametzez osatutako basotxo batean barrena doan bide-zidor batetik, Magdalena haitzulora helduko gara. Bertan gaudela, lurraren errai sakonetara daraman aho izugarria ikusiko dugu gure aurrean zabal-zabalik.

Atxuriaga parketik ere abiatu ahal gara, La Galdames trenbidearen hasieran.




Nos dirigimos hacia las montañas mineras, al encuentro de un rincón que fue en otros tiempos, además de un viejo coto férrico, lugar de reunión de las esforzadas familias mineras con ocasión festiva. El recorrido discurre por un viejo camino de minas zigzagueante que conduce hacia el barrio de Uraiaga, a donde llegamos tras discurrir junto a robles, endrinos, eucaliptos y pinos y pasar al lado de la nueva y colorista Depuradora de aguas, junto a dos antiguas moradas de mineros en el barrio de La Escarpada: la primera, a la sombra de un chopo, en otro tiempo bar de la Carballa y, la segunda, en total ruina, antigua cooperativa.

Desde el barrio de Uraiaga, a través de un sendero que discurre por un bosquecillo de robles y rebollos, alcanzamos la cueva de La Magdalena, ante la cual sentiremos abrirse las fauces de la tierra.

También podemos iniciar nuestro recorrido desde el Área Recreativa de Atxuriaga, en el inicio de la Vía La Galdames.

# Leku interesgarriak

**1 Atxuriaga auzoa**
Etxeak karez zurituta dauzkan aspaldiko meatzari-auzoa. Auzoaren ondoan, Tardía eta Berango meatzeen hondakinak eta urmaela dauden tokian, aisialdirako leku zabala egin dute, aintzira ederrekin (Atxuriaga parkea). Haritz gorriaren, astigar zorrotzaren eta lizarraren ale ugari landatu dituzte inguru guztian. Gainera, aparkalekua, taberna, erretokiak, mahaiak eta iturriak daude.

**2 Urallaga auzoa**
Uztailean Magdalena eguneko erromeria bertan egiten delako ezaguna. Antzina, meatzaritzaren gainbehera hasi zen arte, taberna eduki zuen. Ardoa amaitzen zenean, izara zuri bat hartu eta zuhaitz biren artean zabaltzen zuten, Pico Moro eta La Cerca mendien oinean San Pedrotik San Estebanerako errepidean zegoen alondegitik ikus zezaten. Seinalea ikusita, ardoa mandoetan edo idi-organ zamatu eta haraino igotzen zuten.

**3 Magdalena haitzulo-meatzea**
Haitzuloaren ahotik isurtzen den Eskatxabletza errekastoaren hotsak lagundurik, Mendebalderantz irekitako haitzulo ikaragarri hori ikus dezakegu. Barruan Andra Maria Magdalenaren baseliza dago. Ahoa 33 metro zabal eta 15 metro inguru garai da. Sasoi batean, minerala erauzten zuten haitzulo barruan (Pepita meatzea), eta La Galdames trenbideraino garraiatzen zuten, haitzuloaren ahoan bertan hasten zen plano inklinatu batetik. 1966an, Bizkaiko Espeleologia Taldeak Historiaurreko aztarnategia aurkitu zuen bertan. Lekuaren magiak bisita merezi du.

# Reseñas de interés

**1 Barrio de La Aceña o Atxuriaga**
Antiguo barrio minero de casas encaladas. Junto a él, y sobre los terrenos ocupados por la balsa y los restos de las minas Tardía y Berango, se han creado hermosos lagos que conforman hoy día un espacio amplio para el recreo (Área Recreativa de Atxuriaga), donde se han plantado numerosos ejemplares de roble americano, arce real y fresno, además de contar con parking, bar, asadores, mesas y fuentes.

**2 Barrio de Uraiaga**
Célebre por acoger la romería de La Magdalena en julio. En otra época, aquí existió una taberna hasta el declive minero. Cuando se les acababa el vino cogían una sábana blanca y la extendían entre los árboles para que se viera desde la alhóndiga que había en la carretera de San Pedro a San Esteban, en las faldas del Pico Moro y La Cerca. Era la señal para que el pedido de vino se pusiera en marcha a lomos de los mulos o en la carreta de bueyes.

**3 Cueva-mina de la Magdalena**
Acompañados del sonido del manantial Eskatxabeltza que nace en su boca, podemos contemplar esta impresionante cavidad, abierta al oeste, que da cobijo a la Ermita de Nuestra Señora Magdalena. Tiene una boca de 33 m. de ancho y unos 15 m. de alto. De su interior se extrajo mineral (Mina Pepita) que se transportaba hasta la línea de ferrocarril La Galdames a través de un plano inclinado que partía de su boca. En 1966 el Grupo Espeleológico Vizcaíno descubrió en ella un yacimiento prehistórico. La magia que guarda este lugar bien merece una visita.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

# Ruta 6 Ibilbidea





**Meatzari-herrixkak eta meatzaritzako azpiegiturak**
**Poblados e infraestructuras mineras**

Ibilbide honek garai bateko meatzaritzako azpiegituren aztarnaz jositako mundu erdi abandonatu batera eramango gaitu. Ibilbidearen hasieran malda gogorrak daude, baina Pico de la Cruz gailurraren ikuspegi ederrak bidearen nekea arinduko digu. Luze gabe, La Macillara helduko gara, Laia eta Ledo auzoen artean. Handik, La Elvirako urmaela inguratuz, La Elvira meatzeko mineralaren deskargaleku ikusgarriaren eta plano inklinatuaren hondakinetara iritsiko gara.




Este recorrido nos acercará a un mundo semiabandonado, donde destacan los restos de antiguas infraestructuras mineras. Tras un primer tramo de exigentes repechos, aliviados por la magnífica vista del Pico La Cruz, llegamos hasta la Mancilla, entre los barrios de Laia y Ledo. Desde aquí, en un recorrido circular en torno a la Balsa de La Elvira, alcanzaremos los restos del impresionante descargadero de mineral y los planos inclinados que daban servicio a la Mina La Elvira.

# Leku interesgarriak

**1 San Pedro Galdames**
Kontzejuko hiriburua, inguruko mendirik ederrena den Pico de la Cruzen oinean kokatua. Plazako eraikin nagusia udaletxea da, Mariano Benlliure valentziar eskultura-lan bikaina, Bizkaiko ohore-eraikuntzarik onenetako bat, eta eliza, basilika motako tenplu neoklasikoa.

**2 Laia auzoa**
Etxe eraiki berrien eta meatzaritzaren garaiko etxeen nahastea.

**3 Ledo auzoa**
Auzo honetako etxeak meatzariek eraiki zituzten, XX. mendearen hasieran.

**4 La Elvira urmaela**
Mineral-garbitokietan sortzen ziren lohiak leku horretan metatzen zituzten, eta horrela eratu zen urmaela.

**5 La Elvirako plano inklinatua eta kargalekuak**
Plano inklinatu baten goialderaino iristen den bagoitxo-bide baten hondakinak daude.

**5 Karsta**
Meatokien ustiapenak utzitako kareharriek edertasun handiko multzo bitxiak eratzen dituzte, haietako asko orratz-formakoak.

**6 La Elvira herrixka**
Garai batean meatzari-herrixka garrantzitsua egon zen tokiko eraikinen hondakinak ikusten dira.

**7 Arenatza haitzuloa**
Euskal Herriko haitzulorik garrantzitsuenetako bat da, Historiaurreko aztarna ugari gordetzen dituelako. Gaur egun, bisitarientzat itxita dago, ikerketa-lanak direla eta.

# Reseñas de interés

**1 San Pedro de Galdames**
Capitalidad del Concejo, asentada a los pies de la montaña más hermosa de la zona, el Pico La Cruz. La plaza está presidida por el ayuntamiento, una magnífica obra escultórica del valenciano Mariano Benlliure, considerada una de las obras honoríficos más sobresalientes de Bizkaia, y la iglesia, de construcción neoclásica de tipo basilical.

**2 Barrio de Laia**
Mezcla de casas de reciente construcción con otras con sabor minero.

**3 Barrio de Ledo**
Sus casas, de principios del siglo XX, fueron construidas por manos mineras.

**4 Balsa de La Elvira**
Creada a partir de la deposición de los lodos sobrantes generados por los lavaderos de mineral.

**5 Coto de La Elvira, plano inclinado y cargaderos**
Restos de una antigua línea de vagonetas que llega hasta la cabecera de un plano inclinado.

**5 Karst**
Las calizas resultantes de las explotaciones mineras forman conjuntos de una curiosa belleza, muchas de ellas en forma de agujas.

**6 Poblado La Elvira**
Son visibles los restos de construcciones donde hace un tiempo se alzaba un importante poblado minero.

**7 Cueva de Arenaza**
Constituye una de las cuevas más importantes de Euskal Herria, por sus yacimientos prehistóricos.

GALDAMESKO Udal Gorena — Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia Nekazaritza Saila — Diputación Foral de Bizkaia Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

# Ruta 7 Ibilbidea





**Jauregiak, herrixkak eta baselizak**
**Entre palacios, aldeas y ermitas**

Ibilbide hau Akendibar auzoraino doa eta Pico de la Cruz gailurreko kareharrizko itsasora hurbiltzen gaitu. Ondoren, Galdames ibaian gora eramango gaitu Gueñesko mugaraino eta, Txabarri auzoa zeharkatuta, abiapuntura itzuliko gaitu.




El paseo nos sube hasta Akendibar y nos acerca al mar de roca caliza del Pico La Cruz para, más adelante, adentrarnos aguas arriba del río Galdames hasta el límite con Güeñes y volver al punto de partida, tras discurrir por Txabarri, en un recorrido circular.

# Leku interesgarriak

**1 Jauregiak**
San Pedro auzoan aitoren seme-alaben eraikin batzuk daude. Besteak beste, Ibarruri dorrea Allende jauregia, ibilbidearen hasieran bertan, edo gaur egun egoitza den Saratxaga jauregia.

**2 Akendibarko artea**
Zuhaitz berezia. Adaburuaren zirkunferentziak ia berrogeita hamar metro ditu.

**2 San Roke baseliza**
Artadi eder baten erdian eraikitako baseliza xumea.

**2 Akendibar auzoa**
Auzoko baserriek berotasuna eta babesa sentiarazten dituzte.

**4 Los Molinos**
Erdi Aroko garai batean hiru errota egon ziren auzo honetan. Gaur egun, hiru errota horietako bat bakarrik geratzen da zutik.

**5 San Kosme eta San Damian baseliza**
Hastialak azken barrokoaren estiloko pintura handi bat dauka, dosel eran, zurezko erretaula neoklasiko txiki bat inguratzen duena.

**6 Txabarri**
Larrez inguratutako leku ederra. Aipagarria da Solegia jauregia, Andra Mariaren baselizaren aurrean.

**6 Txabarriko Andra Maria**
Udalerriko baseliza nagusia da, eta igandeetan meza ematen da. 1691ko erretaula barrokoa dauka.

**7 San Frantzisko baseliza**
Garrantzi handiko baseliza da.

# Reseñas de interés

**1 Palacios**
El barrio de San Pedro acoge algunos edificios nobles: la Torre de Ibarruri, el Palacio de Allende, justo en el arranque del recorrido, y el Palacio de Saratxaga, actual residencia.

**2 Encina de Akendibar**
Árbol singular, con una copa de casi cincuenta metros de circunferencia.

**2 Ermita de San Roque**
Su humilde construcción contrasta con la belleza del encinar que le rodea.

**2 Barrio de Akendibar**
Sus caseríos producen sensación de calor y arrope.

**4 Los Molinos**
En este barrio llegaron a convivir en la Edad Media hasta tres molinos. Actualmente, sólo se conserva una de esas tres aceñas.

**5 Ermita de San Cosme y San Damián**
El hastial o cabecera tiene una gran pintura de estilo tardo barroco en forma de dosel, que enmarca un pequeño retablo neoclásico de madera.

**6 Txabarri**
Bello rincón de praderas donde destaca el Palacio de Soleguía, frente a la ermita de Nuestra Señora.

**6 Nuestra Señora de Txabarri**
Es la ermita más notable del municipio y en ella hay culto dominical. Tiene un retablo barroco datado en 1691.

**7 Ermita de San Francisco**
Se trata de una ermita muy notable.


GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES
Bizkaia
bizkaia.net
Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura
ENKARTERRIALDE

# Ruta 8 Ibilbidea





**Bi dorreak: San Estebango espiritualtasunetik Loizagako luxura**
**Las dos torres: desde la espiritualidad de San Esteban al lujo de Loizaga**

Gauza jakina da Enkarterrin Euskal Herri osoko familiarik itzaltsuenen ondorengoak bizi izan zirela eta, leinuei dagokionez, eskualde osoan ez dagoela Galdamesekin lehia daitekeen herririk, nortasun sendoa eta sustrai historiko sakonak baititu. Eder ageri dira oraindik dorreak eta oinetxeak, Enkarterriko aitoren seme-alaben egoitza bikainak. Gure ibilbidean armarridun etxe horietako batzuk ikusteko aukera izango dugu, hala nola Loizaga dorre zaharberritua, iraganeko handitasunaren adierazle nagusia.

San Esteban Galdames auzoa izango da gure ibilbidearen abiapuntua, eta handik El Escobal auzora joko dugu. Antzina, nekazaritzak eta larreek garrantzi handia izan zuten udalerriko alderdi horretan, baina, meatzeak ustiatzen hasi zirenez geroztik, gainbehera egin zuen eta bazterturik geratu zen.




Es cosa reconocida que Enkarterri fue poblada por los descendientes de las más ilustres familias de todo el País Vasco y que no hay en toda la Comarca ningún otro lugar que pueda competir en linajes con Galdames, de recia personalidad y acusada raigambre histórica. Todavía destacan, hoy día, sus torres y casas solariegas, flor y nata de la nobleza encartada. En nuestro recorrido tendremos ocasión de contemplar alguna de estas casas blasonadas, siendo la restaurada Torre de Loizaga el ejemplo más representativo de ese señorial pasado.

Iniciamos nuestro recorrido desde San Esteban, en Galdames de Suso, y nos dirigimos hacia el barrio El Escobal apreciando lo que antaño representó una zona del municipio de gran riqueza agrícola y de pastos, que se fue deprimiendo y quedando en el olvido a raíz de la explotación de las minas.

# Leku interesgarriak

**1 San Esteban auzoa**
Pico Moro mendiaren oinean eraikia, aipagarriak dira iraganeko aitoren seme-alaben eraikinen aztarnak, fatxadetako armarrietan eta hainbat etxeren jauregi-egituran. Gainera, bertan dago kontzejuko hiru parrokietako bat. Beste biak San Pedro Galdames eta Montellanoko Andra Maria dira.

**2 Antzinako kastroak**
Pico Moro eta La Cerca mendietan erromanizazioaren aurreko biziguneak egon ziren.

**4 Concejuelo auzoa**
Armarridun etxeekin, Gueñestik Sopuertarako errege-bidean.

**4 Loizaga dorretxea**
Erdi Aroko Loizaga dorre zaharberritua eta beraren inguruko esparru harresitua munduko Rolls Royce autoen bildumarik handienaren egoitza dira gaur egun (igandetan eta jaiegunetan bisitarientzat zabalik dago).

**5 Loizagako Santiago eliza**
Bertako biztanle askok diotenez Bizkaiko zaharrena da. Gaur egungo eraikina XVI. mendearen amaierakoa edo XVII.aren hasierakoa dela esan daiteke.

## Ibilbide osagarria:

**El Castaño – Valle auzoa – Garai auzoa – San Esteban**
Ibilbide osagarri honek, bide-zidor batetik, lehenengoz, Valle auzora eramaten gaitu eta ondoren Garai auzora. Garain okintza tradizio luzeko lanbidea da. Handik, errepidea hartuta, San Estebanera itzuliko gara.

# Reseñas de interés

**1 Barrio de San Esteban**
Levantado a los pies del Pico Moro, son destacables las señales de su pasado señorial en los escudos que presiden sus fachadas y la estructura palacial de varias de sus casas. Acoge, así mismo, una de las tres parroquias existentes en el Concejo, junto a San Pedro, en Galdames de Yuso, y a Santa María de Montellano.

**2 Antiguos Castros**
El Pico del Moro y La Cerca albergaron asentamientos anteriores a la romanización.

**4 Barrio de Concejuelo**
De casas blasonadas, en el camino real de Güeñes a Sopuerta.

**4 Casa-torre de Loizaga**
La restaurada torre medieval de Loizaga y el recinto amurallado que se levanta en torno a ella, acoge en la actualidad la mayor colección de Rolls Royce del mundo (Abierto al público domingos y festivos).

**5 La Iglesia de Santiago de Loizaga**
Muchos lugareños dicen que es el más antiguo de Bizkaia. La edificación actual puede pertenecer a finales del S. XVI o comienzos del XVII.

## Tramo complementario:

**El Castaño – Barrio El Valle – Barrio Garai – San Esteban**
Este recorrido complementario nos acerca a través de un sendero a El Valle para continuar hasta Garai, de gran tradición en la elaboración de pan. Desde aquí, la carretera, nos acerca nuevamente a San Esteban.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES
Bizkaia
bizkaia.net
Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura
ENKARTERRIALDE

# Ruta 9 Ibilbidea





**La Galdames trenbidea**
**Vía La Galdames**

Ibilbide hau oinez zein bizikletaz egin daiteke. Galdamesen hasten da, Atxuriaga parkean, eta Los Castaños auzoan amaitzen da, handik 11,5 km-ra, Abanto-Zierbena udalerrian. Hortik, beste 3 km egin daitezke, Gallartako Renfeko geltokiraino.

Ibilbideak La Galdames meatzaritza-trenaren plataforma du oinarri. Trena La Benedictaraino iristen zen (Sestaon), eta han deskargatzen zuten minerala. Ibilbide atsegina da, lasaia eta adin guztietarako egokia. Izan ere, ez du aldaparik eta oinez zein bizikletaz ibiltzeko prestatuta dago. Bidean, natur balio handiko paisaiez gozatzeko aukera izango dugu, urkiak, haritzak eta sahatsak izango ditugu bidelagun, beste landare-espezie askorekin batera, eta iraganeko meatzaritzaren aztarnak aurkituko ditugu (tunelak, garbitokiak, plano inklinatuak, deskargalekuak...).




El recorrido de este paseo peatonal y ciclista discurre entre las Áreas Recreativas de Atxuriaga, en Galdames, y Los Castaños, a 11,5 km, dentro del término municipal de Abanto-Zierbena. Desde este punto, uno puede continuar 3 km. más hasta conectarse con la Estación de Renfe de Gallarta.

El trazado se soporta sobre la antigua plataforma minera del ferrocarril La Galdames que llegaba hasta La Benedicta (Sestao) donde descargaba el mineral que transportaba. Representa una ruta acogedora, tranquila, abierta a todas las edades debido a su falta de desnivel y acondicionada para el paseo a pie y en bicicleta. A lo largo del mismo, tendremos oportunidad de disfrutar de paisajes de gran valor naturalístico, dejarnos acompañar de abedules, robles y sauces, entre otras muchas especies vegetales, y descubrir restos de ese pasado minero (túneles, lavaderos, planos inclinados y descargaderos, etc.).

# Leku interesgarriak

**1 Atxuriaga parkea**
Garai bateko Atxuriaga meatzari-auzoan dago, Tardía eta Berango meatzeen hondakinak eta urmaela dauden lekuan.

**2 3 La Galdames trena**
Garai batean, Sestaoraino garraiatzen zuen burdin mea, La Benedictako deskargalekuraino. Bilbao River Cantabrian Railway Company Limited enpresak egin zuen trenbidea, 1876an, eta bere garaiko luzeena izan zen (22,5 km). 1968an, erabiltzeari utzi zioten, eta 1972an kendu egin zuten.

**5 "La Cadenilla" plano inklinatuaren oina**
Abanto-Zierbena udalerrian El Once izeneko auzoa dago. Auzo horren alboan, Bizkaiko luzeena eta garrantzitsuena izan zen plano inklinatuaren mineral-kargalekuaren hondakinak ikus daitezke oraindik. Plano inklinatu horretatik, haraino eramaten zuten Galdamesko El Sauco auzoko meatzeetako burdin mea.

**6 Gallarta**
Herria Gallarreta izenaz aipatuta ageri da XV. mendeko agirietan. 1960an berriro eraiki behar izan zuten, Antigua Gallarta lehergailuz eta dinamitaz eraitsi ostean.

**7 Meatzaritzaren Museoa**
Euskal Herriko Meatzaritzaren Museoa garai batean Gallartako (Abanto-Zierbena) udal-hiltegia egon zen eraikinean dago.

## Ibilbide osagarria:

**4 El Pobal burdinola (XVI. mendea)**
Bizkaian, lanean jarraitzen duen burdinola bakarra da.

# Reseñas de interés

**1 Área recreativa de Atxuriaga**
Situada en el antiguo barrio minero de La Aceña, sobre los terrenos ocupados por la balsa y los restos de las minas Tardía y Berango.

**2 3 Ferrocarril La Galdames**
Antaño llevaba el mineral de hierro hasta el descargadero de La Benedicta (Sestao). Construido en 1876 por la Bilbao River Cantabrian Railway Company Limited, fue el más largo en su época (22,5 km). Su explotación terminó en 1968 y se desmanteló en 1972.

**5 Pie del Plano inclinado "La Cadenilla"**
Junto al barrio El Once de Abanto-Zierbena, se pueden observar aún hoy restos del cargadero de mineral del que fuera el plano inclinado más largo e importante de toda Bizkaia y que transportaba, hasta este punto, el mineral de hierro procedente de las minas de El Sauco de Galdames.

**6 Gallarta**
El pueblo, ya datado en el siglo XV como Gallarreta, hubo de ser reconstruido en 1960, tras el derribo de la Antigua Gallarta a golpe de barreno y dinamita.

**7 Museo minero**
El antiguo matadero municipal de Gallarta (Abanto-Zierbena) alberga hoy día este equipamiento.

## Tramo complementario:

**4 Ferrería de El Pobal (s. XVI)**
Representa la única ferrería en funcionamiento en Bizkaia.

GALDAMESKO Udal Gorena
Excmo. Ayto. de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila
Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura

ENKARTERRIALDE

## Bi dorreak:
## San Estebango espiritualtasunetik
## Loizagako luxura

## Las dos torres:
## desde la espiritualidad de San Esteban
## al lujo de Loizaga

## Burdinaren gorrixkatik
## larreen berderaino

## Del rojo hierro al verde prado

## Meatzari-herrixkak
## eta meatzaritzako azpiegiturak

## Poblados e infraestructuras mineras

## La Galdames trenbidea

## Vía La Galdames

## Galdames lau gurpil gainean

## Galdames sobre cuatro ruedas

# GALDAMES

## zugandik hurbil

## cerca de ti

SALNEURRIA / P.V.P.: 3,50 €



GALDAMESKO
Udal Gorena

Excmo. Ayto.
de GALDAMES

Bizkaia
bizkaia.net

Bizkaiko Foru Aldundia
Nekazaritza Saila

Diputación Foral de Bizkaia
Departamento de Agricultura